

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Ostirala, 2011ko maiatzaren 27a. VIII. urtea. 2.234. zenbakia. www.tolosaldea.hitza.info

Juantxo Zeberio Musikaria

«Zuzeneko honetan jendea sentsazio berezi batekin geratzen da»

Juantxo Zeberio tolosarrak eta Maddi Oihenart zuberotarrak 'Baldi' lana aurkeztuko dute gaur, 20:30etik aurrera Tolosako Topic aretoan

Piano jotzaileak dioenez, Oihenart entzutea «Iratiko basoan sartzea bezalakoa da», izan ere «aire asko entzuten da; iradokitzailea, intimoa eta goxoa da» o3



Maddi Oihenartek eta Juantxo Zeberio (erdian) 'Baldi' eskainiko dute Tolosan. HITZA

Garai bateko Alegia irudikatuko dute herritarrek igandean

10:00etan herriko txistulariek emango diete hasiera egunari; goizean zehar ekitaldi ugari izango dira, tartean auzoen arteko herri kirol apustua Kalebeherako frontoian o6

Irteera Ausa Gaztelura «nor garen, eta nondik gatozen» aldarrikatzeko

Villabonako Aritza Kultur Taldeak eta Nabarraldekin antolatu dute txangoa datorren urtean «gaztelarrek Nafarroa Garaia inbaditu zutela 500 urte beteko direlako» o4

Euskal dantzak hartuko dituzte bihar, Ibarrako bazter guztiak

Alurr dantza taldeak Dantzari Txiki eta Alurr eguna antolatu du bosgarren aldiz; goizean goizetik dantzak izango dira nagusi herrian, eta 15:30etik aurrera dantza eta jolasak uztartuko dituzte o7



Muñazabal
MUEBLES - ALTZARIAK

San Ignacio, 2 • 20400 TOLOSA
tel/fax : 943 65 17 61



logelak • liburutegiak • sofak • koltxoak • neurriko altzariak • sarrerak • sukaldeak • dendatako altzariak • etxebizitza reformak • proiektuak ...



Zerkausian izango da konzertua. HITZA

Musikaria astea bi emanaldirekin amaituko da

Musika Bandak eta Musika Eskolako ikasle bandak kontzertu bana emango dute; Udaberri ariko da azken hauekin

Itzea Urkizu

Bihar iluntzean, Tolosako Musika Bandak konzertua eskainiko du Musikaria astearen egitaraua osatuz.

Emanaldia Zerkausian izango da, 19:00etan, eta Enrike Arostegi Eguzkitzaren gidaritzapean ariko dira musikariak.

Interpretatuko dituzten piezak honakoak izango dira: *Lazos de Amistad* pasodoblea, *Festive*

Overture op. 96, Caribbean Concerto, El año pasado por agua zarzuela eta *Danzon n.º2*.

Amaiera, gaztetxoekin

Musikaria asteko egitarauari amaiera emateko, eta azken bi urteetan bezala, igandean Leidorren emanaldia izango da. Tolosako Musika Eskolako ikasle bandak eta Udaberri dantza taldeak, elkarlanean emanaldia prestatu dute.

12:00etan hasiko da emanaldia, eta ikasle bandak interpretatuko dituen abestiekin, koreografiak eskainiko dituzte Udaberriko ikasleek. 3 urteko hurrekin hasi, eta 14 urteko gaztetxoek ere dantzatuko dute.

• tolsa@hitza.info

Markinara irteera antolatu du Beti Gazte elkarteak

Ekainaren 4an izango da, eta izena emateko Amarozko Beti Gazte jubilatutako elkartena joan behar da

I. Urkizu

Amarozko jubilatutako eta pentsiodunen elkarteak irteera antolatu du datorren ekainaren 4rako.

Markinara egingo dute txangoa, eta egun osoz izango da.

Amaroztik goizeko 09:00etan irteno dira, eta nahi duenak Santa Klaran hartu ahal izango du autobusa, 08:45ean. Lehenengo Arretxinagako San Migel baseliza bisitatu dute.

Gero, Ziortzako kolegiatara ere joango dira.

Aipaturiko bi bisita hauek egin nahi ez dituenak, Markinara geratzeko aukera izango du, bazkalordura bitarte.

Bazkaria, Berriatuako Laka-Erdi sagardotegian egingo dute, eta bazkalondoren dantzaldia izango da.

Izena emateko, Beti Gazte elkartearen egoitzara joan behar da, ostegun eta ostiralean, 17:00etatik 20:00etara bitarte. Irteeraren prezioa, bestalde, 30 eurokoa izango da bazkideentzat; bazkide ez direnek 33 euro ordaindu beharko dituzte. Argibide gehiago nahi dituenak, 653 74 71 92 telefonoa dei egin dezake.



Pinotxo pertsonaia ezagunaren istorioa kontatuko dute. HITZA

‘Pinocho, corazón madero’ antzezlanak izango da bihar Topic-en

Teatro de las Estaciones taldeak eskainiko du hurreni zuzendutako txotxongilo emanaldia

I. Urkizu

Bihar arratsaldean, gaztetxoekin zuzenduriko txotxongilo emanaldia izango da Topic aretoan: *Pinocho, corazón madero* (Pinotxo, egurrezko bihotza).

Pinotxorena Italiako egur finekin egindako panpin famatuari buruzko elezahar garaikidea da.

Bere aita, munduko azken arotza da, pixkanaka lanbidea desagertzaren ari baita. Bakardade honi aurre egiteko, egurrezko panpina gizaki bihurtzea beste desiorik ez du. Abesti eta dantzen artean kontatuko dute istorio hau.

18:30ean hasiko da emanaldia, eta sarrerek 4 euroko prezioa izango dute hurrentzat. Helduak, 7 euro ordaindu beharko dituzte.

Heldu eta gazteentzako zine eskaintza izango da asteburuan

Hiru pelikulez gozatu ahal izango da, bihartik hasi eta igandera bitarte, Leidor aretoan

I. Urkizu

Asteburu honetarako zine programazioak ere, adin guztiei zuzenduriko filmak dakartza Leidor aretoan.

Gaur iluntzean, 20:30ean *Agua para elefantes* izango da ikusgai. Sara Gruen idazlearen *best seller*-a zinerako egokitu dute.

Bihar, berriz, 19:30ean *Mundu hobe batean* izango da ikusgai. Atzerriko film onenaren Oscar saria jaso duen pelikula, euskaraz ikusi ahal izango da. 22:30ean, *Agua para elefantes* izango da.

Igandean, hiru filme ikusgai izango dira Leidorren. 17:00etan *El oso Yogi* hurrentzako pelikula eskainiko dute, eta 19:30ean eta 22:00ean, *Agua para elefantes* eta *Mundu hobe batean* izango dira ikusgai, hurrenez hurren.

Azkenik, astelehenean, *Mundu hobe batean* ikusteko aukera izango dute bertaratuak; ikuslearen eguna denez, sarrera merkeagoa izango da.

Lasorain K.E.-k ‘play off’-a jokatuko du Nazional A mailara igotzeko

Ligako azken partida 8-5 irabazi ondoren, bigarren postuan amaitu du denboraldia areto futbol taldeak

I. Urkizu

Laskorain K.E. taldeak, igoera faseko *play off*-a jokatuko du datorren igandean.

Joan den asteburuan Transportes Lakunza taldearen aurkako partidaren 8-5eko emaitza lortu zuen, eta bigarren postuan amaitu dute denboraldia.

Sailkapeneko postu txukunari esker, hurrengo denboraldia A mailan jokatzeko aukera izango dute tolosarrek. *Play off*-eko joaneko partida Antsoainen izango da, Iruñetik gertu, igandean, 12:00etan.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Asier Imaz

Maddi Oihenartekin urteak daromatza Juantxo Zeberio (Tolosa, 1968) piano jotzaileak. Zuberotarraren lehen diskoan, *Hari Biru-n* (Elkar 2007), elkarrekin aritu ziren lanean. Bigarren honetan, besteak beste, Kirmen Uribe, Itxaro Borda, Bernardo Atxaga, Karlos Linazasoro eta Maddi Oihenart beraren olerkiak kantu bilakatu dituzte.

Etxean jotzeak zer sentiarazten dizu?

Atzean lan handia egin dugu, eta ingurukoan aurrean aurkeztea tokatzen zaizunean... gehienbat ilusioa sentitzen dut.

Topic zer moduzko aretoa iruditzen zaizu?

Gure kontzertua nahiko gauza berezia da; intimioa. Topic-en 200-250 lagunentzako ondo prestatutako lekua dago, eta horrelako gune batean jotzea gozada bat da. Jotzen ari dena eta entzulea oso bilduta gelditzen dira, oso goxoa da lekua. Leidorren egingo bazen, agian, pixka bat handiegia geldituko zen.

Urduritasuna ere izango duzu?

Futbol jokalariek esaten duten bezala, zelaira irten aurretik beti behar da urduritasun puntutxo bat. Baina proiektu honekin eta beste hainbatekin urte asko dira jadanik, eta urduritasun hori kontrolatutako urduritasuna da. Azken finean, badakizu zer ematen duzu, eta baita taldeak nola funtzionatzen duen ere, kantuek bere ibilbidea egina daukate eta... gehienbat disfrutatze kontzertua izango da guretzat.

Zentzu batean, Maddi Oihenartek kantatu aurretik, publikoa irabazita izan ohi du.

Maddirekin bi gauza pasatzen dira. Alde batetik, hainbat guneetan bere izena ezaguna dela, hamaika egoeretan azaldu delako, zuberorria delako eta abar. Bestalde, ordea, publiko zabalarentzat oraindik nahiko ezezaguna da. Euskal musikari Benito Lertxundi, Mikel Laboa eta Xabier Lete oso ezagunak izan dira, eta dira; hortik behera ordea, bere publikoa edo lekua duten beste hainbat aurkitzen dira, eta Maddiren kasua hau izango litzateke. Baina egia da, eskenatoki batean, errazagoa dela horrelako ahots bat baldin baduzu aurrean.

Ezagutzen ez dutenei nola aurkeztuko zenieke?

Lehenik, ez dakitela ongi zer gaitzen ari diren esango nieke. Elkarrekin eskotan jo dugu, bai hemen eta baita atzerrian ere, hitzak ulertzen ez dituzten lekuetan jendea aho bete hortz gelditzen da.

Behin hori esanda, Zuberoako tradizioa denok ezagutzen dugu pixka bat, eta Maddik hori barnean darama. Abeslari onen fama daukate, baina kasu honetan, emakume batez ari gara hizketan, eta Zuberoan kantatzen duten emakume gutxi daude, eta are



OLATZ PEÑAGARIKANO

Juantxo Zeberio ◊ Musikaria

Maddi Oihenart eta Juantxo Zeberio euren azken lana, 'Baldi', gaur aurkeztuko dute Tolosako Topic zentroan; kontzertua 20:30ean hasiko da, eta sarrera 10 eurotan jarri dute salgai.

«Maddi kantuan entzutea Iratiko basoan sartzea bezalakoa da»

gutxiago bera bezalakoak. Maddiren ahotsa Iratiko basoan sartzea bezala da; bertako haizeak egiten dituen ufadak, koloreak, soinua... zuhaitz artetik. Beti konparaketa hori egiten dut nik, Maddi entzutean aire asko entzuten baita; oso iradokitzailea, intimoa eta goxoa da.

Horrelako ahots bati instrumentuak gehitzea, ez da erraza izango, ezta?

Nire erronka zailena ez baldin bada izan, zailenetakoa hori izan da. Horrelako ahots batek, berak

bakarrik hainbeste esaten duenean, arrisku hori izaten da, hau da, jartzen diozun guztia lagungarri izan beharrean okerrerrako izatea. Hori erronka bat zen, eta egia esan, oso gustura gaude lortutakoarekin. Bere kantaera errespetatuz, kantua janztea eta interesgarriagoa egitea zen erronka, ez hiru musikari bere ahotsarekin lehian ibiltzea. Kontzertura doan esango du, baina lortu dela uste dut nik. Horrek ez du esan nahi, tarteka, kanturen bat berak

bakarrik sartuko ez duenik, jendearekin batera kantatuz eta abar. Oso berezia izango delakoan nago.

Pianoa, kontrabaxua, txeloa eta eskusoinua sartu dituzue abestietan. Nola aukeratu dituzue?

Hori izan da pixka bat nire lana. Maddi eta bion arteko elkarlana hor kokatzen da gehienbat. Berak musika buruan dauka, ahoan, bihotzean,... baina gero musika

idatzia aurkitzen da, eta hori da nire lana. Bidelagun horiek aukeratzeko ez da hain zaila izan azkenean, hasieran buruhauste handiak izan banituen ere. Bi klabe egon dira; alde batetik, gogokoak, ezagunak eta jotzerakoan nahiz funtzionatzerakoan afektiboki oso hurbil ditudan musikariak aukeratu ditut, eta bestetik, anitzak, ahotsera egokitzen direnak. Lehen esan bezala, haizea bezala ibiltzen da Maddi, erritmo batetik bestera.

Pello Ramirez eta Txema Garces oso ondo ezagutzen nituen, eta laguntzaile lan horretan maisuak dira; koloreak ateratzen, ahotsaren inguruan jolastan, eta beti hor, inondik borrokan ibili gabe.

Xamurtasuna, epeltasuna, zoragarria... horrelako hitz asko entzuten dira Maddi Oihenarten ahotsaren inguruan. Baina, bera zuzenean entzunda, estereotipo ponpox hori nekagarria izateaz gain, erabat murriztailea dela iruditzen zait.

Benitoren kontzertua da Benitoren kontzertua, eta badakizu zer entzutera zoazen. Hor ez dago ezustekorik. Maddi ez da hori; badauka niretzat xamurtasun hori, baina egia da beste dimentsio bat ere baduela. Horregatik gehiago gustatzen zait konparatzea Zubero izate horrekin. Badu zerbat ezustekoa ematen dizuna. Zuk Euskal Herrian edozein abeslari galdetzen badiozu kantari erreferente baten izena, oso gutxi utziko dute aipatu gabe Maddi, eurek badakitela zein zaila den berak egiten dituen gauzak egitea. Betiko kantua betiko eran entzutera joan denari, agian, gogor xamarra iruditzen zaio, bai, baina musikazaleari eta hor sartuta dagoenari asko gustatzen zaio. Hala eta guztiz ere, oraingo proiektu honetan, eta gaurko kontzertuan, topiko horiek betetzen direla uste dut. Instrumentazioarekin kontzertuak osotasun bat hartzen du; ordube edo ordu eta laurdenero emanaldia da, eta instrumentuak bidea egiten dute, lagundu bezala egiten diote, pixka bat koherentzia emanaz Maddiren ahotsari eta diskurtso guztiari. Hori bai, zuzeneko honetan jendea harrিতa ez nuke esango, baina bai sentsazio berezi batekin geratzen dela, beste paisaia batzuetan ibili denaren sentsazioarekin.

Iragarki laburrak**ESKAINNTZA**

■ **Klase partikularrak.** Psikopedagogian eta hezkuntza berezian tituludunak LHko eta DBH1 eta DBH2ko ikasleei klase partikularrak emango lizkieke. Andoain, Aduna, Villabona, Zizurkil, Asteasu edo inguruetako herrietan. Intere-

satuek deitu ondorengo telefono zenbaki honetara: 669 00 56 71.

SALGAI

■ **Mastin txakurkumeak.** Mastin txakurkumeak salgai, 50 eurotan. Interesaturik deitu ondorengo telefonora: 618 25 49 71.

Berriaren edizio digitalerako
DISEINATZAILE-PROGRAMATZAILE bat behar da.

Ezagarrri hauek bete behar ditu: **Erreferentzia: 2011EH-DP**

- Ezinbestekoa da HTML, PHP eta MySQL programazio lengoaiak eskarmentua izatea.
- XHTML eta CSSrekin maketatzen esperientzia izatea.
- Photoshop eta Flash programak ezagutzera.

Eskaintzen da:

- 12 hilabeteko kontratua (luza daiteke).
- Lanean berehala hastea (ekainean).

Bidali curriculuma gb@berria.info helbide elektronikora, erreferentzia zehazturik, ekainaren 1a baino lehen.

Historia gogoratuz Ausa Gaztelura martxa egingo dute

Gaztelarrek Nafarroa Garaia inbaditu zutela 500 urte betetzear direla eta, igandean Ausa Gaztelura igoko dira

Enertiz Maiz

Ausa Gaztelura martxa antolatuta dute Nabaraldekoek eta Villabonako Aritz Kultur Taldekoek. Izan ere, «datorren urtean 500 urte beteko dira, gaztelarrek Nafarroa Garaia inbaditu zutela. Orain 500 urte, 1511. urtean, Nafarroa Estatu independentea zen, eta orain 812 urte, gipuzkoarrok nafarrak» ginela aldarrikatu nahi dute.

Antolatzaileen esanetan, «Nafarroa, erresuma librea zen Europan, baina alboko bi erresumen eraso bortitzen eraginez estatu hori mapatik ia-ia desagertu egin zen. 1054. urtean, mugan gertatutako guduan, Atapuerkan, kendu egin zizkiguten Enkarterri eta Bureba; 1076. urtean, Errioxa; eta 1200. urtean, Araba, Bizkaia eta oraingo Gipuzkoako lurrak bortxaz beretu zituzten gaztelarrek».

Geroztik nafarrak ez gara diole, baizik eta gaztelarrak, hau da, espainiarrak. Mende hauetan guztietan, gure hizkuntza debekatuz desagerrarazi nahi izan gaituztela aldarrikatu nahi dute.

«Gure erreferente sinbolikoak suntsitu nahi dituzte, Ausako gaztelu honekin egin zuten bezala. Ez dute nahi guk jakitea nor garen, nondik gatozen. Ez dute nahi guk nora joan nahi dugun erabaki dezagun», gaineratu dute.

Nabaralde eta Aritz Kultur Elkarteok argi dute: «Guk badakigu hizkuntzaz eta kulturaz Euskal Herria gara, eta gure jatorriko estatua Nafarroa dela. Gu gipuzkoarrek gara, euskaldunak gara, beraz, nafarrak». Gure arbasoen ondarea defendatzeko prest agertu dira: «Osoen kontra, lehortearren kontra, lukurreriaren kontra, justiziaren kontra, defendatuko dugu gure arbasoen lurraldea».

↓ Egitaraua

MAIATZAK 29, IGANDEA

- **09:00.** Irteera Larraitetik.
- **Ekimena.** Ausa-Gaztelun egingo dute: Plaka agertu, mezua irakurri, eta *Erribera* eta *Nafarroako Ereserkia*, abestuko dituzte txistulariekin.
- **13:00.** Larraitzen elkartuko dira: Bertsolarien saioa, Ausako DVDa ikusi, mezua irakurri eta kalejira egingo dute trikitilariekin.
- **14:30.** Bazkaria.



San Frantzisko 21 • TOLOSA • Tel.: 943 11 42 14
poxpolin@poxpolin.com • www.poxpolin.com

Irudia



GALLEGO EUSKADIKO TXAPELDUN

Euskadiko 15 eta 17 urte azpikoen Halterofilia Txapelketa Gasteizen jokatu zen. Asier Gallego Euskadiko 15 urte azpikoen txapelidun geratu zen, eta Kellyam Quintana Euskadiko 17 urte azpikoen azpitxapeliduna izan zen. 15 urte azpikoen taldean aritu ziren Danenako Pułsulariak Asier Gallego eta Issam Eloikili izan ziren. Banakako sailkapen

orokorrean Asier Gallego lehen postuan sailkatu zen, eta 17 urte azpikoen taldean Adrian Sasiain, Kellyam Quintana, Asier Gallego, Joseba Arrate eta Sofyam Rochdi aritu ziren. Banakako sailkapen orokorrean Kellyam Quintana 2. postuan sailkatu zen. Hurrengo txapelketa, Espainiako Nagusia izango da, Iruñean, ekainaren 4an. HTZA

Poltsikoko Lehiaketako finalerdietara iritsi diren lau saio, gaur

10:30ean hasiko da Poltsikoko V. Antzerki Lehiaketako finalerdietako lehen kanporaketa

E. Maiz Aduna

Eskola Kirolak ikasturte amaierako festa egingo du Arratzainen

Villabonako Eskola Kirolak antolatuta, 09:30ean hasiko da festa. Kirol ugari probatuko dituzte

E. Maiz Amasa-Villabona

→ Laburrak

Larraulgo ekomuseoaren eguna ospatuko dute

LARRAUL > Ekomuseoaren 2. urteurrena ospatuko dute, bihar, 11:00etan, buztinaren tailerra egingo dute; *Pisatzeko tresnak* izeneko erakusketa inaguratuko dute; eta bolatokia, tokan eta txingatan ariko dira. 13:30ean Ostatuan bazkalduko dute. Jarraian, 16:00etan herriko ondare kulturala ezagutzeko mendi ibilaldia egingo dute. Ondoren, bolatokia eta museoa irekita egongo dira nahi duenarentzat.

Klarinete eta piano emanaldia, Anoetan

ANOETA > Loatzeko musika eskolako ikasleek klarinete eta piano emanaldia eskainiko dute, gaur, 18:30ean, Anoetako auditorioan. Bestalde, 2011-12 ikasturterako martikulazio epea zabalik dagoela gogorarazi nahi dute.

Dagoeneko lau kanporaketa pasa ditu Asvineneak antolatzen duen Poltsikoko V. Antzerki Lehiaketak. Finalerdietako lehen kanporaketa izango da gaur 22:30ean, Adunan. Sailkatutako lau antzezlan hauek ikusteko aukera izango da: *Zintzilik*, Edurne Agirrezabalaren eskutik; *Gusanito de luz* - Retamarena; *Maitetasuna*, Tic Tac-en eskutik; eta Portugalteko Antzerki Taldearen *Belleza*. Artista gonbidatua, Txalagore, musika taldea izango da.

Bihar, Villabonako Eskola Kirolak, ikasturte amaierako festa egingo du. Arratzainen izango da, bi zatitan banatuta. Alde batetik, benjaminak 09:30ean areto futbolako partidak jokatuko dituzte. Bestetik, alebinak eta infantilak 11:30ean jokatuko dute. Gainera, Multiekintzak proiektuko kirolak praktikatuko dituzte, 20 minutuko saioak eginaz: Rugby, badminton, mahai tenisa, herri kirolak eta hockeya. Opari eta gozokiak banatuko dituzte.



maiatzak 29
IBILALDIA 2011
ONDARROA BOGA!
DANOK ONDARROARA!

Denboraldia ondo hasi dute triatloilari tolosarrekin

Lehen postuetan amaitu dituzte lasterketa gehienak Agirresarobe eta Zalakain triatletek

I. Urkizu Tolosa

Triatloi denboraldia pasa den apirilaren 30ean hasi zen, Senpereko (Lapurdi) lakuan. Orduz geroztik, triatloian aritzen diren tolosarrekin emaitza onak lortu dituzte.

Senperen, taldekako erlojuaren aurkako frogan, Atletiko San Sebastian taldeko Egoitz Zalakain eta Aimar Agirresarobe tolosarrekin garaipena lortu zuten. Hurrenge egunean, berriz, Senpe-

ren, Agirresarobek laugarren postua lortu zuen bakarkako frogan. Aipatzekoa da TTT taldeko Maider Gaztañagak ere, Lapurdi lortutako garaipena.

Maiatzaren 7an, Euskadiko zirkuitua hasi zen, sprint distantziako triatloiarekin. Bigarren iritsi zen helmugara Aimar Agirresarobe, eta lehen euskalduna izan zen. Egoitz Zalakainek, berriz, bosgarren postua lortu zuen. Bermeon ere, Maider Gaztañagak irabazi egin zuen emakumezkoen mailan.

Datorren uztailaren 4an, Espainiako triatloi txapelketa izango da Gasteizen, eta Arabako hiriburuko lehian parte hartzeko sailkapen proba izan zen maiatzaren 14an Madrilan; Ecotrimad distan-

tzia erdiko proba, hain zuzen. Aimar Agirresarobek elite mailako proban parte hartu zuen. Faborito nagusiak estatu mailako triatleta onenariakoak diren Marcel Zamora eta Francisco Pontano kataluniarrak ziren. Agirresarobek, ordea, bizikletako proban ederki aritu ondoren, atleta kataluniarren erritmoari eutsi zion, korrikako proban hirugarren postuan arituz. Bidegurutze batean, antolakuntzako akats bat medio, tolosarrak 4 kilometro gehiago egin behar izan zituzten; hala ere, 12. postuarekin, uztailko elite mailako Espainiako txapelketa izango da.

Pasa den asteburuko Hondarribiako triatloian, laugarren sailkatu zen Zalakain tolosarra.



Lezkarri abesbatzak, besteak beste, abesti afrikarrak kantatuko ditu. HITZA

Igeldoko ahotsen kontzertua, elizan

Lezkarri abesbatzakoek Afrikako hainbat doinu eskainiko dituzte; Txintxarrikoek ere parte hartuko dute

abestiak dira gehienak. Lezkarri abesbatzakoek txanda izango da hori eta gero. Igeldoko perkusio taldearen laguntza ariko dira igeldoarrak, Kote de la Granjak gidatuta.

Duela zortzi urte sortu zen abesbatza, herrian kantuak zuen hutsunea betetzeko helburuarekin. *Igeldotik Afrikara* izeneko ikuskizunaren barruan hamaika abesti eskainiko dituzte, horietako batzuk euskal kantu herrikoiak, eta beste batzuk Latinoamerikako doinuak. Emanaldia-ren izenburuak dion bezala, kantu afrikarrak izango dira nagusi: Zulu etniakoak, Kamerungo abesti bat eta Hego Afrikako bi abesti. Kantu gehienak Gurutze eta Jaione Dorronsorok perkusioarekin lagunduta abestuko dituzte.

Kontzertu amaieran, Benito Lertxundiren *Herribera* abestuko dute elkarrekin Txintxarri eta Lezkarri.

Nerea Pikabea Alegia

Igeldoko Lezkarri abesbatzak emanaldia eskainiko du bihar, Alegiako Joan Bataiatzailea Deunaren elizan. Herriko Txintxarri abesbatzarekin duen harremanetik sortu da kontzertua eskaintzeko aukera, eta larunbatean *Igeldotik Afrikara* izeneko ikuskizuna eskainiko dute.

Igeldoarren emanaldia arratsaldeko zortzietan izango da. Lehendabizi, Lezkarri abesbatzari ongi-etorria emateko, lau kantu abestuko ditu herriko Txintxarri abesbatzak Garbiñe Orbegozok zuzenduta. Javi Busto hondarribiarrak eginiko edo moldatutako

AAMk deituta elkarretaratzeak, gaur

I. Garcia

↓ Azken ostiralak

Gaur iluntzean ohiko elkarretaratzeak izango dira Tolosaldeko eta Leitzaldeko herrietan Amnistiaren Aldeko Mugimendua-ren deialdiari jarraituz.

Era berean, LAB sindikatua Leitzako Sarriopapel enpresan elkarretaratzea egingo du gaur 12:30etik 14:30era. Bertan, sindikatuko ordezkariek izango dira, eta herriko guztiak gonbidatu dituzte parte hartzera.

- **12:30.** Leitzako Sarriopapel enpresan.
- **19:30.** Alegia, Amezketa, Anoeta, Ibarra eta Tolosa.
- **20:00.** Aduna, Asteasu, Li-

- zartza, Orendain, Villabona, Zirzurkil eta Leitza (Lopeneko biribilgunean).
- **20:30.** Ikaztegieta.
- **20:15.** Txarama.

Bestalde, Amnistiaren Aldeko Mugimendua azaldu duenez, Gregorio Jimenez Morales *Goito* tolosarra Madrilera eraman zuten herenegun bere aurkako eu-

roagindua onartua izan eta gero. Tolosarra eta Sopelako Aitor Arretxe Espainiako Entzutegi Nazionalera eraman eta gero, espetxeratu egin zituzten.



TOLOSALDEA

GOIMAILAKO L.H. INSTITUTUA



ziklo guztiak euskaraz

Zure etorkizuna ziurtatzen dugu!

AURREMATRIKULAK Ekainaren 1etik 10era

ERDI-MAILAKO ZIKLOAK

- Instalazio elektrikoak eta automatikoak
- Mikroinformatika-sistemak eta sareak
- Mekanizazioa
- Soldadura eta Galdaragintza

GOI-MAILAKO ZIKLOAK

- Mekanika
- Informatika
- Administrazio eta Finantzak
- Instalazio Termikoko eta Fluidodun Mantentzea
- Erregulazio eta Kontrol Sistema Automatikoak
- Metal eraikuntzak

943 65 11 47 • www.tolosaldea.com

Mugikorrean informazio gehiago
Mezu bat bidali: **TOLOSALDEA** idatziz 5533ra

Zenbait hamarkada historian atzera

Garai Bateko Alegia festa antolatu dute iganderako; tartean, auzoen arteko herri kirol apustua izango da

Imanol Garcia Alegia

Orain bi urteko arrakasta ikusirik, bigarren aldiz antolatu dute Garai Bateko Alegia festa. Igandean egingo dute, goizetik hasita, eta herriak zenbait hamarkada atzera egingo du historian. Kontatu ez badituzte ere, parte hartuko duten herritarren kopurua handia izango da, Mainer Jauregi kultur zinegotziak azaltzen duenez: «Herri bazkaria 300 lagunentzako da eta astebeteko epean txartelak amaitu ziren. Lagun horiek guztiak normalean ekimenean parte hartuko dute».

Jauregik, hain justu, herritarren parte-hartzea nabarmentzen du: «Orain bi urte lehenengo egin genuenean, orduan ere arrakasta horrekin gelditu ginen: festa bat izan zen oso jende ezberdina elkartzeko balio izan zuena. Hortik ondorioztatu genuen beste saiakera bat egin behar genuela, beste behin ere antolatzeko, parte-hartzea izugarria izan zelako».

Lehenengo festa prestatzeko, lana hartu zuten ekimenaren asmoa herritarrei azaltzeko, Jauregik gogora ekartzen duenez: «Festa egun bat zela, gure aurreko historia ezagutzeko modu bat zela. Gure herrian zegoen hainbat joe-



Orain bi urteko festan, ezkonberriak plazarako bidean. HITZA

ra eta lanbide egun batez berreskuratzeko aukera zela. Jendeak ulertu zuen, eta egun horretan ere nahiko islatuta gelditu zen hori. Orain bigarrena izanik, jendeari azalpenak ematea errazagoa izan da. Gainera, asko gogoz gelditu ziren aurrekoa egin eta gero. Hurrengo egunetan jende askok esan zigun festa berriro egin behar zela».

Berritasunak

Egitarau zabalak prestatu dute aurreko garaia egun batez berpizteko. «Nahiko garbi genuen, garai bateko bizimodua berreskuratzeko, lehenengo festan egindako zenbait ekintza errepikatu egin behar zirela. Oinarria aurrekoaren berdintsua da», dio Jauregik.

Lehengoko langintza eta bizimodu ezberdinak islatuko dira herriko lau puntutan: Bulebarra, Txintxarri plaza, Kalebehera eta

plaza. Berritasunak ere izango dira: ile apaindegi bat; eskola zahar bat, garai bateko argazkiekin egindako erakusketarekin; aroztogia; aulkigilea; eztagilea eta gaztagilea.

Bestalde, orduko bizimoduaren zertzelada batzuk izango dira: umeen jolasak nolakoak ziren, emakumeen arteko harremanak nola izaten ziren, herri kirolak nola egiten ziren...

Aurrekoan, eskualdeko ezkontza bat antzeztu zuten. Oraingoan, ekitaldi nagusi gisa, auzoen arteko herri kirol apustua egingo dute Kalebeherako frontoi zaharrean. «Gehienbat garai bateko herri kirolak oinarritutako apustua izango da: oskol apustua, zakua eramatea, giza proba, korrika, eta bukatzeko, sokatira», dio Jauregik. Gero, garai bateko dantzariak, lehen dantza taldean ibilitakoak, soka dantza egingo

↓ Egitaraua

- **10:00.** Herriko txistularien diana.
- **10:30.** Bandoa.
- **11:00.** Kantujiraren hasiera plazan.
- **11:00-13:00.** Lanak eta eginkizunak.
- **12:00.** Bertso saioa balkoitik balkoira, plaza inguruan.
- **12:45.** Argazki herrikoia plazan.
- **13:00.** Kalejira erraldoia plazatik Kalebehera. Ondoren, auzo arteko herri kirol apustua. Lehidan, garai bateko dantzariak.
- **14:30.** Herri bazkaria. Bukatzeko, erromeria Jai-Alai taldearekin.

dute. Bazkaria plazan egingo da, eta aurrekoan bezala paella erraldoia prestatuko dute.

Orain bi urte sortu zen giro berdina sortzen saiatuko dira aurtengoan. «Aurrekoan ez genekien lortuko genuenik», dio Jauregik. «11:00etarako, martxan jarri genuenean, konturatu ginen lortu genuela».

Festa asko daudela dio kultur zinegotziak, baina egun horrek berezitasun bat baduela: «Adin eta izaera ezberdinetako pertsonak, bakoitzak bere txokoa izan dezakeela, eta denak kalean elkartzen garela. Oso festa zabala bihurtzen da. Adinekoei oroitzapenak ekartzen dizkie eta gazteei lehengoko ohiturak eta bizitza ezagutarazten die».

→ Laburrak

Herriarteko Txapelketa, Hernaniren aurka, gaur

BIDEGOIAN > Herriarteko Pilota Txapelketa jokatu du bihar Bidegoianek Hernaniren aurka. Etxean izango dituzte joaneko partidak, 18:00etan hasita. Bestalde, Aurrera Saiaz elkarteko pilotariak partidak izango dituzte asteburuan Lau t'erdiko Udaberri Txapelketan. Alebin mailan Lapke 4 taldekoaren aurka jokatu du Aurrera Saia-zeoak Lazkaon, gaur, 18:00etan. Senior mailan, bi partidak izango dira Tolosako Beotibar pilotalekuan, bihar, 10:00etan hasita. Otaegi Vianako Belokiren aurka airko da, eta Mujika Eskoriatzako Zubizarretaren aurka.

Kultur Asteko ekitaldiak eta gurasoentzat bilera

ALBIZTUR > Kultur Astearen baitan, gaur magia emanaldia izango dute, Angel Magoaren eskutik, 18:00etan, udaletxearen aretoan. Bihar, Gesaltzara bidaiaria egingo dute eta etzi Mendikute kobazuloa ikustera joateko ibilaldia izango dute. Bestalde, gurasoei zuzendutako bilera antolatu du udalak, bihar, 20:00etan, udaletxean. Alde batetik, hiru urtetik hamabi urtetara bitarteko udaleku irekiei buruz hitz egingo da. Uztailaren 4tik 15era egingo dira. Bestetik, 13-17 urte bitarteko gazteentzako Lizarrara aste-buru saria egiteko bidaiari buruz ariko dira hizketan.



harpidedun izateak badu saria irabazleak

1 Otordua

Ñañarri Jatetxean
2 lagunentzako
bazkaria edo afaria

Ana Usandizaga (Alegia)

Larraitz auzoa • Abaltzisketa • Tel.: 943-65 58 15



2 Otordua

Kako Jatetxean
2 lagunentzako
bazkaria edo afaria

Olatz Bordagarai (Alegia)

Herriko plaza, 7 • Berastegi • Tel.: 943-68 30 59



3 Otordua

Mari Jose Mendizabal (Villabona)

Ostatu Hernalde Jatetxean
2 lagunentzako bazkaria edo afaria

Hernalde • Tel.: 943-65 24 96



4 Ile mozketa

Gregorio Begiristain (Tolosa)

Mikel Izagirre
ileapaindegian
ile mozketa

www.lasonet.com/mikel

Gorosabel, 27 beheha • Tolosa • Tel.: 943-67 52 49



→ **Laburrak****Saharar herriarentzako elikagaien bilketa**

IBARRA › Gizarte Zerbitzuak elikagaiak jasoko ditu Saharara bidaltzeko. Aurtengo kanpainan arrosa, lekaleak, pasta, hegaluzea oliotan, sardinak oliotan, azukrea, konpresak, olio eta helduentzako fardelak behar dira. Produktuak honako lekuetan bilduko dira: udaletxean (09:00-14:00); Kultur Etxean (10:30-13:00 eta 15:30-21:00); Uzturpe ikastolan (09:00-12:30 eta 14:30-18:00). Janariak hilaren 25etik ekainaren 3ra arte jasoko dituzte.

Udarako kamisetak diseinatzen lehiaketa

BELAUNTZA › Irarri serigrafiak udako kamisetak atera behar ditu, bezero eta lagunen artean doan banatzeko. Horretarako diseinu lehiaketa bat antolatu du. Bertan edonork parte har dezake, baina lehiakide bakoitzak lan bakarra aurkeztu ahal izango du. Lanak originala eta inoiz argitaratu gabea izan behar du. Lanak irarri@terra.es helbidera bidali behar dira, edo enpresan bertan utzi behar dira hilaren 30a baino lehen. Argibide guztiak eta lehiaketako oinarriak: www.irarri.serigrafia.com.

Haitzetan Rajukoak rafting egitera joango da

IBARRA › Haitzetan Rajuk rafting egitera joateko irteera antolatu du. Gaur abiatuko dira 18:00etan, eta igandean itzuliko dira. 22 euroko kostua du, eta izena emateko aukera izango da azkeneko momentura arte 652.71.58.00 telefonoan.

500 pertsona inguruk parte hartuko dute Dantzari Txiki eta Alurr egunean

09:30ean talde guztiak elkartu eta denek batera 'Agurra' dantzatuko dute egunari hasiera emateko

Maier Ugartemendia Ibarra

V. Dantzari Txiki eta Alurr eguna ospatuko dute bihar, Ibarrran. Egun guztiko jaia izango da; goizean, dantzari txikiak ariko dira, arratsaldean erromeria izango da, eta gauean Alurr dantza eskolaren emanaldia izango da.

Dantzari txikien festan Ibarra, Anoeta, Zizurkil, Tolosa, Berastegi, Irura, Iparralde, Bera eta Altzoko dantza taldeek parte hartuko dute. Horretarako, 09:30ean talde guztiak elkartuko dira Ibarrrako plazan. Bertan ongi etorria egingo diete guztiei. Ondoren, *Agurra* dantzatuko dute talde guztiak. Jarraian, talde hauek herriko hainbat puntutara abiatuko dira kalejiran: Azkue, San Inazio, Idoiaga, Emeterio, eta Ibarrrako plaza. Horrez gain, Euskal Herria kalean zehar ere ibiliko dira dantzariak herria alaitzeko asmoz, eta herritarrek festara gonbidatuz. Talde bakoitzak dagokion lekuan bi dantza eskainiko ditu, eta amaitutakoan hamaiketako jasoko dute bertan.

12:30ak inguruan, denak plazan elkartuko dira, eta bertan talde bakoitzak beste dantza bat egingo du. Amaitzeko, denek batera *Fandangoa* eta *Arin arina* dantzatuko dituzte. Ondoren, indarrak berreskuratzeke bazkaltzera joango dira dantzari guztiak.



Nagusiek eskainiko duten emanaldia 22:00etan izango da, herriko plazan. HITZA

Eguraldi txarra eginez gero, Kiroldedian ospatuko da festa guztia. Goizean 350 dantzari txiki ariko dira dantzan gutxi gorabehera; Alurrekoak 150 inguru izango dira.

Musika, dantza eta jolasak

15:30etik 17:30era Iparraldeko dinamizatzaile talde bat ariko da, musika oinarri hartuta dantza eta jolasak lotzen. Antolatzaileek herritar guztiak bertan parte hartzea gonbidatu dituzte.

Honekin, nolabait herrien arteko elkartruke bat egitea dute helburu. Kultura bera dutenez, elkar hobeto ezagutzera lortu nahi dute.

Gaueko emanaldia

Gauean helduen txanda izango da; Alurr dantza taldeko 120 dantzari emanaldi bat eskainiko

dute, 22:00etan, plazan. Eguraldi txarra egingo balu Kiroldedian izango litzateke. Emanaldia dohainik izango da.

Antolatzaileen hitzetan, urte guztian zehar egiten duten «lanik onenetakoa» izaten da hau. Emanaldian, Aiert Beobidek, Alurreko irakasleak, prestatutako koreografiak eskainiko dituzte. «Dantzak, arropa, musika... berriak», eta «mota askotarikoak» izango dira. Gainera, adin ezberdinetako gazte ugari hartuko dute parte ikuskizunean.

500 pertsona lanean

Horrelako festa bat antolatzeak, jende asko mugitu behar izatea eskatzen du; dantzari gain, irakasleak eta gurasoak ere lanean aritzen dira egun berezi honetan. Antolatzaileen arabera, gutxi go-

rahehera 500 lagun inguruk parte hartu beharko dute, bihar egun guztian zehar, festako ekitaldi ezberdinetan, dena ondo atera dadin. Honengatik, antolatzaileek eskerrak eman nahi dizkiete «guraso, elkarte, musikari, dantzari eta irakasleei» ematen dieten laguntzagatik; beraiek gabe, ezinezkoa izango bailitzateke hainbeste jende mugitzen duen festa bat antolatzea.

Bestalde, Tolosaldeko herritar guztiak eta ibarar guztiak festan parte hartzea gonbidatu nahi dituzte. Eta, festara joaten direnei goizetik euskal jantziekin joatea ere eskatu diete.

Argi dago, beraz, egun horretan ez dela ez dantzari eta ezta umore onik ere faltako. Euskal kulturaz gozatzeko eguna izango da biharkoa.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena

ESKELAK • 18:30ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

HILETAREN BALIOA Txina Inperiala

Funeraria Vascongada ere pertsonen dugu pertsona bakoitzak bere neumiko fileta izan behar duela. Horregatik, alor honetan lider garenez, aukera ekonomiko guztietara egokitzen diren Hileta Zerbitzu Packak eskaintzen ditugu gure kalitatearen bermearekin.

Berreskurazozina da galdu duzuna, baina laguntza eskainiko dizugu dena erazagoa izan dadin.

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

902 402 900

www.funerariavascongada.com



GOIZA	EGUZKIA
ARRATSALDEA	EGUZKIA
BEROENA	20°
HOTZENA	11°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: www.tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@iragarri.net.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoetaldea@hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitzaldea: 687 410 118. leitzaldea@hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak
S.M.ko kideak:



eta Tolosaldeko
eta Leitzaldeko
beste 77 eragile

Hitza-k
Bai
Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:
Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezketeta, Anoeta, Areso, Belauntza,
Berastegi, Elduain, Herrialde, Irura, Leitza, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Agenda

DEIALDIK

- **Larraul.** Ekomuseoaren bigarren urteurrena dela eta 11:00etan buztinarekin tailerra; **Pisatzeko tresnak** izeneko erakusketaren irekiera; bolatokian toka eta txinga lehiaketa; Ostatuan bazkaria; eta 16:00etan mendia ibilaldia.
- **Albiztur.** Udalekuak antolatzeko bilera egingo dute bihar, 20:00etan Kultur Etxean. Izena emateko epea ekainaren 3an amaituko da.
- **Leitza.** XXXIV. Kultur Aroaren barruan, gaur 20:00etan elkarretaratzea Lopenean hileko azken ostirala dela eta, eta 23:00etan Kerobia taldearen kontzertua zineman. Bihar, Gazteen Eguna: 14:00etan bazkaria; 18:00etan kalejira; 19:00etan malabare ikuskizuna plazan; 20:00etan batukada; 21:00etan luntxa; eta 23:00etan Hidro eta Vomitorien kontzertuak. Igandean 09:00etan gaiteroen diana; eta 11:00etatik aurrera XXXIV. Artisaub Azoka plazan.
- **Amasa-Villabona.** III. Segundo Montes-Aiztondo Senidetze Eguna igandean. 11:00etan patinetako ginkana. Errebote plazan; 12:00etan udal ordezkarrien harrera instituzionala Segundo Monteseko ordezkariei; 12:30ean herritarren harrera txupinazioarekin, eta ondoren pregoia; 13:00etan buruhandiak; 14:30ean bazkaria bertolari eta trikitilariekin; 17:00etan **Bizitza Zirkuan** Potxin eta Patxinen eskutik Errebote plazan; eta 20:30ean kontzertua eta berbena Errebote plazan.
- **Tolosa.** Sanblasipiko Gazte Asanbladaren Maiatza Gorriaren barruan bihar 09:30ean Otsabitik irtenda **Aralar atzo eta gaur ibilaldia** Lizarrustitik barrena; 14:00etan bertso bazkaria Otsabin bertan; eta ondoren kontzertua.
- **Albiztur.** Kultur Astearren barruan gaur 18:00etan udaletxeko hitzaldien aretoan Angel Magoaren **Muykishow** emanaldia. Bihar Gesaltzara ibilaldia.
- **Tolosa.** Izaskungo Santutegiaren igandean meza nagusia 11:00etan. Santa Maria kaperak abestuko du.
- **Tolosa.** Galtzaundi euskara taldeak igandean izango den Ibilaldira joateko autobusa antolatuko du. 09:30ean irtengo da tren geltokitik.

BERTSOLARITZA

- **Tolosa.** Izaskun auzoko Arsenal elkarteak antolatutako bertso afaria gaur. Julio Soto, Miren Amuriza, eta Eneritz Artetxe bertsolariak izango dira bertan.
- **Armezketeta.** Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako saioa bihar goizez eta arratsaldean. Goizean Beñat Iguaran ariko da.

JAIK

- **Xarama.** Jaiak gaur eta bihar. Gaur 21:00etan suziria; eta ondoren barrikotea plazan. Bihar 12:00etan toka txapelketa; 13:30ean pintxo lehiaketa; 16:00etan herriko dantzarien kontzertua zineman; 17:00etan ume jolasak eta txokolatada; ondoren ikuskizuna zinean; 21:00etan herri afaria; eta ondoren, bertsolariak eta trikitilariak.

ANTZERKIA

- **Villabona.** Pikor taldearen **XL Town** antzezlan gaur, 22:30ean Gurean.
- **Aduna.** Asvineneak antolatu duen V. Poltsikoko Lehiaketaren finalerdia izango da gaur, 22:30etik aurrera Asvinenean bertan. Lau talde ariko dira, eta Txalagore musika taldea izango da gonbidatutako artista.

MUSIKA

- **Tolosa.** Cobra eta Trumbo taldeen kontzertua bihar, 22:30etik aurrera Bonberenean.

KIROLA

- **Alkiza.** Aiztondo VII. Olimpiadak bihar 16:00etatik aurrera.

- **Tolosa.** Roberto Jauregiren omenezko Hegats Igeriketa Txapelketa bihar egun osoan zehar Usabal kiroldegian.
- **Leitza.** Eusko Label Banakako Aizkora Txapelketako Urrezko Mailako finalerdien jardunaldia etzi 12:00etatik aurrera Amazabal pilotalekuan.

Farmaziak

GAUR

- **Ibarra.** L. Lejeune, Euskal Herria kalea, 46. 943 67 32 74.
- **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia, 112.
- **Iruztun.** Gastearena, M. Amaya kalea. 112.

BIHAR

- **Tolosa.** Azpiroz, L. Amarotz auzoa, 9. 943 67 51 18.
- **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia, 112.
- **Iruztun.** Gastearena, M. Amaya kalea, 112.

ETZI

- **Tolosa.** Morant, R. Zabalarreta, 1. 943 67 36 49.
- **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia, 112.
- **Iruztun.** Gastearena, M. Amaya kalea, 112.

ETZIDAMU

- **Ibarra.** Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. 943 67 09 15.
- **Lekunberri.** Azpiroz, M. A. Aralar kalea, 43. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Irudia Amasa-Villabona



IPUINA ETA BERTSOA

Berto Ipuin Lehiaketa 2011ko sariak banatu zituzten atzo Gurea antzokian. Udaleko Hautsi Izagirre eta Maite Agirreekin batera, Amaia Agirre aritu zen bertsoetan sariak banatzen, Mendizabal eta Mujika lagun zituela. Ipuin sarituen artean, lehen saria: Anne Iztuetak, Larraitz Garmendiak, Silvia Morenok eta Aitor Gisasolak eskuratu zuten. Bertsoetan berriz, lehen saria: Ander Usandizaga, June Ugarte, Iratxe Geresta eta Ane Gerestak eraman zuten. ENERITZ/MAIZ

SALESIANOS urrieta **SALESIARRAK**

LANBIDE HEZIKETA
FORMACIÓN PROFESIONAL

Ikastetxea irekita auzera **Puertas abiertas**

zatoz ven
Eramangarri baten Zozketa

maiatzak 28. 10:00-13:00
28 de Mayo. 10:00-13:00

www.salesianosurrieta.com

2011-2012 ikasturterako
AURREMATRIKULA ekainaren 1etik 10era

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA (A eta D ereduak):
Ite-apoiaketa

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA (A eta D ereduak):
Estetika

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA (A ereduak):
Estetika eta Edertasuna (LOE)

GIPUZKOAKO IKASTETXE OFIZIAL BAKARRA. IKASKETAK DOAN
San Ignazio, 25 - Tel.: 943 13 42 23 Fax: 943 89 41 96
01229 Las@hezkuntza.net - 20800 ZARALUZ